

MANUEL ZIARSOLO GIRONELLA

(1902-1987)

Abeletxe pseudonimoa erabili izan du. Bilbon jaio zen 1902-garren urtean. Gerra ondoan Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen. Gerra aurrean eta ondoan hainbat aldizkaritan euskaraz idatzi izan du: *Euzkadi*, *Ekin*, *Euzko*, *Gudari*, *Erri*, *Jagi jagi*, *Bizkaitarra*, *Euzkerea*, *Anaitasuna*, *Tierra vasca*, *Euzko gogoa*, *Karmel*, *Olerti*, *Egan*,..., eta *Zeruko argian*-n *Gazi-gazak* umorezko atala egiten zuen. *Eguna* egunkaria, gudarien artean ere zabaltzen zena, euskara hutsez sortu zenean artezkari egin zuten eta suntsitu zen arte iraun zuen zuzendari lanetan. Gerra ondoan, gartzela kontuak iragan eta gero, *Txinpartak* Euskaltzaindiaren Bilboko Erribera kalean ari zen taldekoentzat teatro gidoiak prestatzen zituen.



1956-garren urtean *Eguberri aizeak* tituluarekin azpian, Barrutia-ren *Acta para la nochebuena*-ren adaptazioa zela, lehenengo saria eman zioten *Egan* literaturazko aldizkariaren inguruan ari zirenek. Gero Gabriel Aresti-k ikertu zuen XVIII-garren mendeko gabon teatro hori.

Gogoan izan behar da gerra ondoan garairik ilunenetan egin ziren saio haiek, bai teatro lanak herririk herri emanik, eta bai euskarazko klaseak eta hitzaldiak Erribera kalekoez gainera beste leku batzuetara zabaldurik, euskalduntzearen eta alfabetatzearen hasiera hasierakoak direla.

Beste titulu batzuen artean *Jai aurrekoa*, *Bermio'ko portuan*, *Sorgiñak Etxaburu'n*, *Jai arratsalde baten*, *Afal ordua*, *Artzañaren ametsa*, *Agur Donibane*, *Goiz otoia*, *Aitsoa gaztetu bear dogu*, *Parisera gogo txarrez*, *Saku jantzia*, *Gabon gabonetan*, *Eztegu t'ardi*, *Bertsolari sariketa*, *Katalin errotako*, eta *Gogozar Berbizkunde goizean*, aipatuko ditugu.

Goian bego.

Alfonso Irigoien